

"XPERIA 10 PLUS - PLAY STATION PLUS KODEA" SUSTAPENAREN
OINARRIAK
(SONY MOBILE COMMUNICATIONS SUECIA SL-RENA)

LEHENA.- ANTOLATZAILEA, SUSTAPENAREN LURRALDE-EREMUA, EPEA
ETA PARTE-HARTZAILEAK

SONY MOBILE COMMUNICATIONS SUECIA SL merkataritza-erakundeak, zeinak egoitza Madrilen baitu (Acanto kalea, 22 - 11. solairua, 28045 Madril) eta IFK B83760744(aurrerantzean, SONY MOBILE), sustapen bat egingo du Euskaltel Taldeko dendetan erositako XPERIA 10 PLUS smartphonearekin, "opari segurua, zuzeneko eta mugatua" modalitatean, 2019ko ekainaren 1etik ekainaren 30era, biak barne, aurrerago azalduko diren baldintzetan (aurrerantzean, "Sustapena").

Sustapen hau estatu mailakoa da, doakoa da, ezin da beste ezein eskaintzarekin metatu eta lege-oinarri hauetan xedatutakoaren mende dago (ikusi oinarriak helbide honetan: www.promocionsony.com/xperia10plus)

BIGARRENA.- XEDEA

Sustapen honen helburua da Espainian XPERIA 10 PLUS smartphonearen erosketa sustatzea Euskaltel taldeko dendetan. Beraz, ez dira baliozkoak beste herrialde batzuetan erositako smartphoneak.

HIRUGARRENA.- SARIAK

Saria zuzeneko eta mugatua da. Hauxe da, hain zuzen:

- PLAY STATION PLUS KODEA, 59,99 €-ko balio zenbatetsia duena (BEZa barne)

Sari hori ezin izango da inola ere aldatu, bestelakotu, dirutan konpentsatu edo besteri laga parte hartzaileek hala eskatuta. Halaber, debekatuta dago opariak merkaturatzea edo saltzea.

Ezinbesteko arrazoiengatik, SONY MOBILEk eskubidea du lehen zehaztutako sariak balio eta ezaugarri bereko beste batekin ordeztzeko, parte-hartzaileei jakinarazi beharrik gabe.

Eskabide bakarra onartuko da NAN/IMEI bakoitzeko.

Muga: 300 unitate/kode.

LAUGARRENA.- PARTE-HARTZEAREN MEKANIKA

Sustapen honetan parte hartu ahal izango dute Espainian bizi diren 18 urtetik gorako pertsonek, bai eta lehen aipatutako lurralde eta garaian terminala erosten duten pertsona juridikoek ere; kasu horretan ere oinarrian deskribatutako saria eskuratuko dute.

Terminala erosten duten bezeroek prozedura honi segitu beharko diote:

www.promocionsony.com/xperia10plus webgunean sartu behar dute eta izen-emateko formularioa bete. Datu hauek eskatuko zaizkio:

- Terminala
- Ezartze-kostua
- Terminalaren IMEIa
- Izen-abizenak
- NAN-ZK.
- Helbide osoa
- Harremanetarako telefonoa
- Helbide elektronikoa

Posta elektronikoz baieztapen-mezua jaso ondoren, mezu elektronikoa bat bidali beharko da info@promocionsony.com helbidera, eta mezuan terminalaren IMEIa eta erosketa-fakturaren kopia bat erantsi. Parte-hartzaileak ziurtatuko du mezu elektronikoa erantsitako dokumentua, faktura jasotzen duena, ondo ikusteko moduan egongo dagoela, bestela ez baitzaio saria emango.

Sustapen honen xede den saria jasotzeko, parte-hartzaileak nahitaez bete behar ditu aurreko datuak eta dokumentua.

Parte-hartzaileak 2019ko uztailaren 10era arte izango du dokumentazio hori bidaltzeko aukera, betiere terminalak lehen adierazitako sustapen-epearen barruan erosi badira.

Epe hori amaitu eta gero, SONY MOBILEk parte-hartzaileek bidalitako dokumentazio guztia egiaztatuko du, eta, hala badagokio, sustapenaren xede den saria bidaliko die parte-hartzaileei izena emateko inprimakian jarri duten helbidera, inolako kosturik gabe.

BOSGARRENA.- ERREKLAMAZIOAK ETA ZALANTZEN KONTSULTAK

Sustapen honekin lotutako edozein arazo edo gertaerari buruz erreklamazioak egiteko epearen amaiera sustapen-epea amaitu eta hiru (3) hilabetera izango da.

Halaber, sustapen honi buruzko edozein zalantza kontsultatu ahal izango dute parte-hartzaileek call center-aren bidez (91 050 73 96 edo 633 644 270, astelehenetik ostiralera, biak barne, 10:00etatik 18:00etara) eta info@promocionsony.com helbide elektronikoan.

SEIGARRENA.- OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek, sustapen honetan parte hartze hutsagatik, onartzen dituzte legezko oinarri hauek, baita SONY MOBILEren irizpidea ere, promozio honen ondoriozko edozein gai ebazteko.

ZAZPIGARRENA.- IRUZURRA

SONY MOBILEk edo sustapen honi profesionalki lotuta dagoen beste edozein erakundek irregulartasunen bat detektatzen badu edo susmoa badu parte-hartzailearen bat sustapenaren bide normala eragozten ari dela edo haren erregistroa edo parte-hartzea legez kanpo aldatzen edo faltsutzen ari dela (edozein prozedura tekniko edo informatiko erabilita), parte-hartzaile horren inskripzioa ezaba dezake alde bakarrez.

Horri dagokionez, garrantzitsua da gehitzea SONY MOBILEk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu dituela oparia legez kanpo lortu ahal izateko sustapen honetako parte-hartzea alda dezakeen edozein jarduera -iruzurrezkoa, ezohikoa edo engainuzkoa- atzemateko. Beraz, SONY MOBILEk eskubidea du aipatu berri diren jardueretan dabilela argi dagoen edo ari dela susmatzen duen edozein parte-hartzaile erregistrotik ezabatzeko, hari inolako jakinarazpenik egin gabe.

ZORTZIGARRENA.- PARTAIDETZA MUGATZEA

Era berean, espresuki debekatua dute parte-hartzea SONY MOBILEko langileek edo sustapenean parte hartzen duten enpresetako beste edozein langilek, bai eta haien senideek ere (hirugarren mailarainoko odolkidetasuna edo bikote-ahaidetasuna).

BEDERATZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Parte-hartzaileek, promozio honetan parte hartze hutsagatik, onesten dute beren datu pertsonalak fitxategi batean sartzea eta tratatzea, sustapenean parte hartzeko bide emateko eta ezarritako komunikazio-bideetan argitaratzeko, sustapenaren irabazle suertatzen bada, eta halaber komunikazio komertzialak eta gure produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzeko, edozein

bitartekoren bidez, elektronikoak barne. Fitxategi horren arduraduna SONY MOBILE COMMUNICATIONS SUECIA SL da (IFK: B-83760744; egoitza soziala Acanto kaleko 22a, 11. solairua, 28045 Madril).

Halaber, parte-hartzaileak onesten du formularioan sartutako telefono-zenbakia zenbait operadorek kontsultatu dezaten, sustapeneko parte-hartzea baliozkoa izan dadin errazteko. Aipatutako helburuarekin kontsulta egin eta berehala, operadoreak ez du eskubiderik izango haien gainean, eta ezingo ditu datuak bere datu-basean sartu.

Datuak tratatzen ari zaizkien parte-hartzaileek doan balia ditzakete datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta egiteko eskubideak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan zehaztutako moduan eta legeak ezarritako prozedura betez. Eskubide horiek egikaritu ahal izango dira idatzizko mezu bat bidalita lehen adierazitako helbidera, behar bezala sinatua, NANaren fotokopia bat erantsita.

Parte-hartzaileak aitortzen eta bermatzen du SONY MOBILERi ematen dizkion datu pertsonal guztiak egiazkoak direla eta bere identitateari dagozkiola.

HAMARGARRENA.- ERANTZUKIZUNA

SONY MOBILE ez da erantzule izango hirugarren enpresa batzuek sustapen honi dagokionez eman behar dituzten zerbitzuen kasuan. Era berean, SONY MOBILEk ez ditu bere gain hartzen sustapenari eragin diezaioketen galerak, hondatzeak, lapurretak, atzerapenak edo hirugarrenei egotz dakizkiekeen beste edozein egoera, ez eta telekomunikazio-sareak aldi batez ezin erabili izana edo ondo ez funtzionatzea ere.

SONY MOBILEk eskubidea du sustapena manipulatu edo faltsutzeko edozein egintza egiten duten pertsonen aurka egintza judizialak abiarazteko.

Parte-hartzaileek SONY MOBILE salbu uzten dute sustapen honen saria gozatzen duten bitartean jasan dezaketen edozein kalteren ondoriozko erantzukizunetatik.

HAMAIKAGARRENA.- AUZIAK EBAZTEA

Parte-hartzaileek SONY MOBILERen irizpidea onartzen dute sustapen honetatik eratorritako edozein gai ebaztearen inguruan.

Oinarri hauen interpretazioan eta aplikazioan sor litekeen auzi orotarako, bai SONY MOBILE bai sustapen honetako parte-hartzaileak espresuki jartzen dira parte hartzailearen herriko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende.

HAMAHIRUGARRENA.- SUSTAPENA ALDATZEA

SONY MOBILEk eskubidea du sustapen honetan aldaketak egiteko edo ondoren eranskinak gehitzeko haren prozedurari eta opariei buruz, baldin eta justifikatuta badaude edo parte-hartzaileei kalterik ez badakarkiete, eta haiei behar bezala jakinarazten bazaizkie.

Ezingo balitz sustapen hau egin, dela sustapenean hautemandako iruzurrengatik, akatsengatik edo ezintasun teknikoagatik, dela SONY MOBILEren kontrolpean ez dagoen beste edozein arrazoiengatik, SONY MOBILEk eskubidea du hura ezeztatzeko, aldatzeko edo bertan behera uzteko.

HAMALAUGARRENA.- OINARRIAK KONTSULTATZEA

Sustapen honen lege-oinarriak lehen adierazitako SONY MOBILE-ren helbidean eta www.promocionsony.com/xperia10plus web-orrian kontsulta daitezke.